

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 18a / 549. zenbakia

LEHEN



ORAIN

Santa Marina

Gaur zabaldu eta domekan berrinauguratuko dute parrokia zaharberritua



Harrapatu naute!
Bai filma onak!




IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Simon Arrieta 4. Tel.: 943 76 21 81. Faxe: 943 76 73 33.
video_irla@infonegocio.es



SANTAMAIÑAK 2003



Uztailak 14tik 17ra

•AITONETAN: Tute, mus, briska, toka, rana, bolo, billar TXAPELKETAK jokatu dira

Uztailak 17, osteguna

•Eguardiko 12:00etan. : Etxafleroak eta kanpai hotsa jaiak adierazteko
•Eguardiko 12:30ean: Makalaran jasoera

Uztailak 18, ostirala, Santa Marina eguna

•Goizeko 10:30ean: XV. Ibilaldi Neurtua jubilatuentzat
•Arratsaldeko 16:30ean: Aitonetan: Tute, mus, briska, toka, rana, bolo, billar FINALAK jokatu dira.
•Ondoren, Aitonetan sari banaketa
•Arratsaldeko 19:30ean XII. Boccia txapelketa
•Arratsaldeko 19:30ean herri meza Eliza Nagusian, Udal korporazioarekin,
•Meza ondoren, Aritzeta abesbatzaren kontzertua

Uztailak 19, larunbata

•Arratsaldeko 16:00etan TXIRRINDULARITZA lasterketa, XII.Santamaina saria

Uztailak 20, igandea

•Goizeko 9:00etan Herriko txistularien kalejira
•Goizeko 11:30ean Bergarako Udal Musika Bandaren kalejira
•Eguerdiko 12:15ean Katabian Udal Musika Bandaren kontzertua.
•Ondoren, Santa Marina Eliza Nagusiaren berrinaugurazioa.
•Eguardiko 13:00etan Meza Nagusia Santa Marinako Parrokian.

Ondo ibili Santamainetan!


ATREBENTZIAEZPADA/ Ze nahixago dozu udan baiñatzeko: hondartzia, urtegixa, igerilekua...?




JULIA ARRIBAS
31 urte



JOSE ANTONIO SERRANO
28 urte




AINHOA CALVO
13 urte



AITOR FERNÁNDEZ
20 urte



NEREA ETXEZARRETA
15 urte



JUAN OTERO
29 urte

Nahixago dot hondartzia. Baiñurako polittagua pensatzen jat. Lehenago igerilekura juten nintzan, urtero etartzten neban karneta, baiña aurten, dagon moduan egonda...

Neri igerilekuan baiñatzia gustatzen jat gehixen. Hondartzia ez jat bape gustatzen, haraiangatik, batez be. Urtegixak be gustatzen jat: Garaio... Egun osua pasatzera lasai jun leike.

Nahixago dot igerilekura juten. Hondartzara be juten naiz, baiña haraia ez jat gehixegi gustatzen, ez da oso erosua. Urtegixak ez jat gustatzen, nazka pixka bat emoten doste.

Urtegixak gustatzen jat gehixen. Landa, esaterako. Gaiñera, baiñatziaz aparte, futbolian be egin leike. Hondartzara ondiokan ez naiz jun, galipota dagola esaten dabelako.

Gehixen gustatzen jatena igerilekua da. Hondartzara be juten naiz, ez jat inportatuta jutia, baiña haraia ez jat gehixegi gustatzen. Onduen eta gustoren igerilekuan egoten naiz.

Errekia da gehixen gustatzen jatena. Angiozar bidian dagon osiñera jun izan naiz askotan. Hondartzia eta igerilekua ez jat askorik gustatzen. Urtegi- ra be juten naiz.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IGERILEKUAN PREZIOA Herritar batek baino gehiagok helarazi digun kexua da. Igerilekuetan iazko prezioari eustea ez zaie batere ondo iruditu, zerbitzua nabarmen kaskartu dela kontuan izanda. Hori dela eta, prezioa merkeagoa izan beharko litzatekeela uste dute. Horren harira, berdegunerako sarrera doan izan beharko litzatekeela ere esaten dute. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6	KIROLA /11	KULTURA /12
Aurrekontua onartuta	Igerilariak Anoetan	Folklore jaialdia
Eguazteneko osoko bilkuran 2003ko aurrekontua onartu zuen Bergarako udalbatzak.	Igeri Elkarteko bost igerilari junior mailako Gipuzkoako Txapelketan izan dira Anoetan.	Kenyako doinu eta dantzak izango dira etzi, domeka, 20:00etan, pilotalekuan, Algap Kenya taldearekin.

ASTEKODATUA

2,35

MILIOI EURO BIDERATU DITU UDALAK INBERTSIOTARAKO

2.351.069 euro izendatu ditu Udalak inbertsiotarako aurtengo aurrekontuan. Iazkoarekin alderatuz, ia erdira jaitsi da: %47,4, hain justu ere. Iaz 4.468.208 euro bideratu zituen.

BESTEKEESANA

“ Bai Euskarari ziuertagiriak konpromisoa adierazten du. Gero, konpromiso horiek

bete egin behar dira. Garrantzitsuena eguneroko jardunean konpromisoak betetzea da. Eragileak urratsak ematen ari dira eta herritarrek saritu egin behar dituzte urrats horiek. Horrek, erabileran eragin egin beharko lukeela uste dut. (...) Prozesua aurrera eramateko metodologia bat ematen du Kontseiluak. Oso garrantzitsua da hori, bestela prozesua askoz ere luzeagoa izango litzateke. Kontseiluak urteetan barrena egin duen lana ez da alferrikakoa izan.

NORA PALMITANO / Zestoako Udaleko Hizkuntz Normalkuntzarako Teknikaria 'Baite'/03-07

BERAIEKDIÑOĒ/ Ainhoa Agirreazaldegí



Behetik gora

Gizakiok, oro har, gu baino gorago dauden eragileak kritikatzeko joera dugu: instituzioak, erakundeak, alderdi politikoak, hezkuntza-sistema, gizarterako makro-proiektuak... Beti goikoak. Ez zaigu arrazoirik falta izaten, eta gainera, ezinbestekoa da hainbeste botere eta diru maneiatzen dutenekin zorrotz jokatzeari, (gehiago) lasaitu ez daitezten.

Baina badirudi askotan ahantzi egiten dugula goikoa behetik osatzen dela. Txiki askorekin osatzen dela handia. Eta nago, belaunaldi berrioi ez ote zaigun norbanakoaren garrantzia arrotz. Egia da, gaurko mundua ikusita ez da erraza txikitasunean sinestea. Baina mundua mundu denetik, eta batez ere, gizakia gizaki denetik, beti izan dira handi-nahiak, handizaleak eta handiminak.

Eskolan gizarte-gaiak ikasten genituenean, nekez ezberdintzen genituen mundua

eta gizartea. Geografiarekin hasi eta herrien kulturetaraino, nahas-mahasean ikasten genituen denak. Baina ezberdina dira oso mundu- eta gizarte-osaketa. Horregatik, mundua konpontzea amestu ordez, gizartea konpontzen saiatu behar genuke. Hor dugulako gure eskumena.

Gizartea ez dute boteredunek osatzen, herritarrok baizik, gure eguneroko jokamoldearekin. Beraz, besteez, goikoez, horiez hitz egin beharrean, gure eguneroko urratsetan izan beharko

ginateke zentzudunago, koherenteago, autokritikoago. Gaur egin dezakezuna biharko ez uztea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da zuk egin dezakezuna besteren esku ez uztea. Horrela bakarrik konpon daiteke gizartea, eta horrela soilik alda daitezke instituzioak. Behetik gora osatzen direlako. Eta gizartea konpontzen denean bakarrik konponduko da mundua.

“Mundua konpontzea amestu ordez, gizartea konpontzen saiatu behar genuke”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrñaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bergarako Udala



Antzuolako Udala



Elgetako Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 18
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 19
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05

DOMEKA, 20
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05

ASTELEHENA, 21
MOZOS. San Pedro 4 943 76 12 15

MARTITZENA, 22
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74

EGUAZTENA, 23
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05

EGUENA, 24
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kirolegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuaren etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegariaeta Domekak: 11:00. San Lorentzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:30. Moja Zaharrak Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 11:00. Mizpirualde Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:15. Zapatuak: 19:00. Domekak: 11:30, 13:00.	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30. Uzarraga Domekak: 10:00. Elgeta Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
Osintxu Domekak: 12:30. Zapatuak: 19:00. Elosu Domekak: 10:30. Ubera Domekak: 10:30. San Juan Domekak: 11:00. Elorregi Domekak: 10:30.	San Lorentzo / San Juandik irteerak 07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00. GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegariaeta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea. Labegariaeta / Olabarrenetik irteerak 07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40. GERALEKUAK: Labegariaeta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

BEDELKARREKO ZOZKETA
Bedelkar herriko dendarien elkarteak uztailearen 8an egindako zozketan zerbaki hauek izan dira sarituak: 26.166, 30.012, 31.962 eta 61.547. Zerbaki bakoitzari 500 euroko erosketa bonoa egokitu zaio.

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztien dako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Uztailearen 25ean Arantzazura erromesaldia izango da eta gero bisita Loiolako Santutegira. Irteera 09:30ean izango da, autobus geltokitik. Erromesaldia eta penitentzia komunitarioa bukatutakoan, erromesen bazkaria izango da Hospederian, 14:00etan. Loiolako Santutegira joateko autobusa 17:30ean irtengo da. Txartelak Agirrebeña jatetxean, Zerkauzi janari dendan eta Zatoia arropa dendan daude salgai.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 23an. Ohi bezala, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30ean hasita.

JARDUNEN AGENDA

GAZTETXOEN IRTEERA EGINORA IRAILEAN
Antxintxika programaren barruan, Jarduneko gatzetxoek Eginora irteera egingo dute irailaren 3tik 6ra bitartean. Izenematea Jarduneko bulegoan -Errotalde jauregian- egin daiteke. Argibideak 943 76 08 19 edo 943 76 36 61 telefono zenbakietan.


URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegariaeta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegariaeta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegariaeta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Artzamendiko hainbat etxebizitzaren zozketa berriz


1993ko otsailaren 25ean Artzamendiko etxebizitza itunduen adjudikazioa egin ondoren, ordutik errenuntziatutako etxebizitzaren zozketa publikoa egin zuten, notario aurrean, uztailearen 15ean. Guztira 18 errenuntzia izan ziren, eta etxebizitza sozialak zein babes ofizialekoak zozketatu zituzten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Errengillaria"

Ihara.
—Txindurri errengillaria agiri zan bidian.
—Jente errengillaria plazaraino aillagatzen zan.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 12 **16 °C**

MAXIMOA
Zapatua, 12 **35 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **5,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	24 °C	17 °C	— l/m²
Eguena, 10	31 °C	17 °C	— l/m²
Egubakoitza, 11	32 °C	17 °C	— l/m²
Zapatua, 12	35 °C	16 °C	— l/m²
Domeka, 13	32 °C	17 °C	— l/m²
Astelehena, 14	24 °C	19 °C	4,3 l/m²
Martitzena, 15	29 °C	18 °C	1,6 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKO

MENDI IRTEERA DOMEKAN

Pol-Polek eta Gorla Alpinok domekan, hilaren 20an, Lojara eta Valderejora joateko mendi irteera antolatu dute. Irteera 08:00etan egingo da, Frontotik. Antolatzaileek dei egiten diete herriko mendi zaleei domekako irteeran parte hartzeko. Itzulera, iluntze aldera egingo da. Txartelak Pol-Pol tabernan salgai daude. Bestalde, Pol-Poleko zuzendaritzak jakin arazi duenez, Komenioko bulegoa itxita izango da irailera arte.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Plater konbinatuak
Oilasko erreak
eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerrean.
Tf. 943 76 71 19

UDALA/ Alderdi sozialista, popularra eta Ezker Batua oposizioan egongo dira

EAJ-EA eta Aralar alderdiek elkarrekin gobernatuko dute datozen lau urteotan

MONIKA BELASTEGI

Ekainaren 14an udalbatza osatu eta gero, eguaztenez osoko bilkuran eman zuten udal arduradunek hurrengo urratsa: Gobernu batzorde berria onartzea, hain justu. EAJ-EA eta Aralar elkarrekin izango dira gobernuan. PSE-EE, PP eta EB, berriz, oposizioan.

Gobernu batzordea sei lagunek osatu dute, EAJ-EA koalizioko bostek, eta Aralarko batek: Victoriano Gallastegi alkateak (EAJ) Josean Etxeberriak (EA), German Muruamendiarazek (EAJ), Juanjo Arrietak (EAJ), Luis Abajok (EAJ) eta Ainhoa Larrañagak (Aralar). Bestalde, alkateorde ere izango dira esandako zinegotziak, aipatutako ordenean.

Gobernu batzordea da Udalean erabakiak hartzeko esku-mena duen organoa eta astelehenero egingo dituzte batzarrak, aurreko agintaldian bezala. Bestalde, osoko bilkuren maiztasuna ere orain artekoa bezala izango da: hilean behin izango dira, hileko azken astelehenetan, hain zuzen ere.



VICTORIANO GALLASTEGI
Hazienda



JUANJO ARRIETA
Gobernazioa eta Zerbitzuak



JOSE ANTONIO ETXEBERRIA
Obra eta Hirigintza



IGOR OIARBIDE
Ingurumena



ARANTZAZU AMASORRAIN
Osasuna, Enplegua eta Gizarte Arazoak



JUAN GARITANO
Baserri auzoak




LUIS ABAJO
Jarduerak, Taldeak, Gazteria eta Jaiak



AINHOA LARRAÑAGA
Euskara eta Hezkuntza



GERMAN MURUAMENDIARAZ
Turismoa eta Ondare Historiko Artistikoa



VALENTIN EGIDAZU
Kirolak

HAMAR BATZORDE INFORMATIBO

Batzorde informatiboei dagokienez, horiek ere eguaztenez osoko bilkuran onartu zituzten. Batzorde informatiboen kasuan, azpi dira, hala eta guztiz ere, horietako bat, Kultura batzordea, hain justu, lau azpi batzordetan banatu dute. Hori horrela, hamar batzorde eta batzordeburu egongo dira. Honako hauek: Hazienda, Victoriano Gallastegi; Gobernazioa eta Zerbitzuak, Juanjo Arrieta; Obra eta Hirigintza, Josean Etxeberria; Ingurumena, Igor Oyarbide; Osasuna,

Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak, Arantzazu Amasorrain; Baserri auzoak, Juan Garitano; Jarduerak, taldeak, gazteria eta jaiak, Luis Abajo; Euskara eta Hezkuntza, Ainhoa Larrañaga; Turismoa eta Ondare Historiko Artistikoa, German Muruamendiaraz eta Kirolak, Valentin Egidazu.

Bestalde, osoko bilkuraren kompetentziakoak diren organo kolegiatueterako ordezkariak ere izendatu zituzten. Debagoieneko Mankomunitateari dagokionez, Victoriano Gallastegi, Josean

Etxeberria eta Ainhoa Larrañaga izango dira ordezkariak. Mendi Nekazaritzan ere Victoriano Gallastegi izango da ordezkaria, eta, ordezkari, Juan Garitano. Gipuzkoako Ur Partzuergoan ere Gallastegi izango da Udalaren ordezkari eta ordezkari, German Muruamendiaraz. Euskaltegiko Fundazio Publikorako bi ordezkari izendatu dituzte: Iñaki Zabala eta Ainhoa Larrañaga. Eta Bergarako Industrialderako ordezkaria Gallastegi alkatea izango da, eta ordezkari, Josean Etxeberria.

EAJ-EA ETA ARALAR ELKARREKIN

Koalizioak eta Aralarrek elkarrekin gobernatuko dute datozen lau urteotan. Ainhoa Larrañaga Aralarko zinegotziaren esanetan, EAJ-EAk egin zien gobernuan parte hartzeko proposamena, eta eurak, onartu egin dute. Larrañagaren hitzetan, "Gobernu batzordea denez erabakiak hartzeko organoa, hor egon nahi izan dugu, botoa eman digutenean alde lan egiteko". PSE-EE, PP eta Ezker Batuaren kasuan, oposizioan egongo dira hiru alderdiok.

PLENO JENDETSUA

Herritar ugari batu zen osoko bilkuran; hainbat, gainera, *No apartheid, autodeterminazioa* zioten karteekin. Bergara Aurrerako ordezkariak ere izan ziren, eta plenoan salatu zuten, "Udalbatza berria hauteskunde ez demokratiko batzuen ondorioa da". Bestetik, herritarren %20 ordezkari barik geratu dela gogoratu zuten, eta EAJ-EAri lapurreta politikoa egotzi zioten, BArren esanetan, "ez dagozkion bi zinegotzi hartu dituelako".

Gotzainak inauguratuko du etzi Santa Marina

MONIKA BELASTEGI

Zaharberritze lanak direla-eta lazko uztailetik itxita egon eta gero, etzi, domekan, berrinauguratuko dute Santa Marina parrokiak. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute, Santa Marina egunarekin bat eginez, baina inaugurazio ekitaldia domekan izango da, 12:30ean.

Ekitaldian izango dira, beste batzuen artean: Miren Azkarate, kultura sailburua; Imanol Agote, duela gutxira arte kultura sailburuordea; Juan Mari Uriarte, gotzaina; eta Victoriano Gallastegi alkatea.

SANTA MARINA JAIK

Berrinaugurazio ekitaldiaren barruan, etzi, domeka, 09:00etan, Udal Txistulari Bandaren kalejira egongo da, eta 11:30ean, Udal Musika Bandak egingo du kalejira. Horren ondoren, 12:15ean, bandak kontzertua egingo du Oxirondo plazan, eta 13:00etan meza egongo da.

Gaur, egubakoitza, Santa Marina eguna, meza izango da 19:30ean, Udal Korporazioarekin. Mezaren ondoren, Aritzeta abesbatzak emanaldia egingo du, eta bihar, zapatua, Santa Marina txirindulari proba jokatu da, 16:00etan.



Urtebetez itxita egon eta gero, gaur, egubakoitza, egingo dute lehen meza Santa Marinan, 19:30ean.

MONIKA BELASTEGI

AURREKONTUAK/ Iazko aurrekontuarekin alderatuz ia erdira jaitsi da Udalak inbertsioetarako bideratu duen dirua: %47,4 gutxiago, hain justu

Udalak 17.820.402 euroko aurrekontua onartu zuen eguaztenean osoko bilkuran

MONIKA BELASTEGI

Aurtengo aurrekontua onartu zuen Udalak eguaztenean egindako osoko bilkuran, 17,8 milioi euro ingurukoa, hain justu. EAJ-EAren aldeko botoekin onartu zen aurrekontua. Aralar alderdia abstenitu egin zen eta PSE-EE, PP eta EBk ezezko botoa eman zuten.

Iazko aurrekontuarekin alderatuz, %1,3 egin du gora aurrekontuak, 236.271 euro, hain justu. Bestalde, inbertsioen atalari dagokionez, aurten, 3.888.979 euro bideratu dituzte inbertsioetarako, iaz baino 579.229 euro gutxiago, eta Gallastegi alkateak osoko bilkuran esandakoaren arabera, inbertsiorik aipagarrienak honako hauek izango dira, besteak beste: Agorrosingo proiektua, Arostegi etxea, mendi nekazaritza, babestutako etxeak egiteko lur sailen erosketa eta hilerria.

Finantza zamaren kasuan, iaz baino zorpetze maila txikiagoari egin beharko dio aurre Udalak, 15,03 puntukoari, hain zuzen ere, iaz baino 0,7 gutxiago.

Gastuen atalean, gastu arruntek (pertsonal gastuak, erosketa arruntak, interesak eta transferentzi arruntak) hartzen dute Udalaren aurrekontuko zati handiena: 12.287.195 euro, hain zuzen ere. Bestalde, aipatzekoa da Bihargintza SAri zuzendutako partidan (1.627.910), gehiena (1.537.910) igerilekuen proiektura bideratuko dela, bera arduratuko baita proiektuaz.

EZTABAIDA PLENOAN

Aurrekontua EAJ-EA koalizio zinegotzien botoekin onartu zuten. Aralar alderdia abstenitu egin zen eta PSE-EE, PP eta Ezker

Batua alderdiek aurrekontuaren kontrako botoa eman zuten.

Aurrekontuen gaiaren gainean, Bergara Aurrerako ordezkari Mikel Egurenek hitza eskatu zuen: Bizpahiru pertsonen artean egindako aurrekontua dela salatu zuen, eta aurreko urteetan bezala, "batzordeetan eztabaidatu gabea". Alkateak, berriz, batzorde bakoitzean aurrekontua nahiko aztertu dela erantzun zion. Victoriano Gallastegi alkateak ezker abertzalea, maiatzeko hauteskundeetan aurretik, aurrekontua onartzeko prest zegoela gogoratu zion Eguren zinegotzi ohinari. Izan ere, aurrekontuaren alde egiteko, Bergara Aurrerak hainbat baldintza planteatu zituela adierazi zuen Gallastegik, baina "baldintza politikoak", ez aurrekontuarekin lotutakoak.

Horren harira Egurenek esan zuen egoera politikoa zein zen ikusita, eta horrelako beste momentu batzuetan ere Euskal Herriaren alde egin izan dutelako, zuek prest aurrekontuak onartzeko; "bizi dugun egoera gatazkatsua gainditzeagatik bakarrik adierazi genuen baiezko botoa emateko borondatea".



Babestutako etxeak eraikitzeko lurak erosteko 120.00 euro izendatu ditu Udalak.

2003rako aurrekontua

Udala:	17.820.402 €
Mizpirualde egoitza:	2.491.664 €
Udal Euskaltegia:	391.059 €
Bergarako Bihargintza SA:	1.627.910 €
UDAL AURREKONTU OSOA:	19.848.204 €

Aurrekontua, batzordeka

Auzoak	516.590 €
Ingurumena	1.232.930 €
Zerbitzu orokorrak	4.283.030 €
Informatika	182.630 €
Kultura	1.156.550 €
Kirolak	1.066.460 €
Hirigintza	1.070.100 €
Hezkuntza	460.130 €
Gizarte Ongizatea	1.839.560 €
Pertsonala	4.531.910 €
Euskara	480.520 €

Inbertsio aipagarrienak

Agorrosingo proiektua	1.537.000 €
Arostegi etxea	225.000 €
2. sektoreko urbanizazioa	225.000 €
Mendi nekazaritza	150.000 €
Hirigintzako proiektuetarako	150.000 €
Herrigunearen zoladura	122.000 €
Babestutako etxeendako lurak	120.000 €
Hirigintza garapenerako lurak	100.000 €
Baserrit bideak	120.000 €
Beste batzuk	1.139.000 €
GUZTIRA	3.888.979 €

Martitzenean jasoko dute baserri inguruetan sortutako plastikoa

MONIKA BELASTEGI

Baserrit inguruetan sortzen den plastikoa ateratzeko hurrengo eguna uztailearen 22an izango da, datorren martitzenean, hain justu. Zerbitzuaren helburua da baserriek sor dezaketen plastikoa jasotzea.

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartearen zerbitzua da, eta helburua da baserriek sor dezaketen plastikoa jasotzea.

Plastikoak ateratzeko datoren martitzenean, uztailearen 22an izango da. Dena den, ezin da edozein plastikoa laga, honako

hauek baizik: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta negutegiko plastiko zuria. Bestalde, plastikozko sokak ez dituzte jasoko; soilik lokarri gisa erabiltutakoak.

PLASTIKOA TOKI JAKIN BATZUETAN LAGA BEHAR DA

Plastikoa arratsaldean atera beharko da, hurrengo egunean pasatuko direlako jasotzera. Gainera, Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartea jakitera eman duenez, toki jakin batzuetan laga

beharko da plastikoa. Honako hauetan, hain zuzen ere: Ugarrixa auzoan, granja parean; Elosu auzoan, Santutxun; Muri-nondo auzoan, trenbide ondoan eta San Juan auzoan, eliza aurreko plazan.

PLASTIKOA ATERATZEKO HURRENGO EGUNAK

Hilean behin funtzionatuko du zerbitzuak, eta ondoko hauek dira datozen hilabeteetan plastikoa ateratzeko egunak: irailaren 23a, azaroaren 25a eta abenduaren 23a. Abuztuko hilabeteari dagokionez, ez da bilketa zerbitzurik egongo.

LABUR

Ur kolektorearen lanengatik itxi egingo dute trenbidea oinezkoendako Mekolalde inguruan

Astelehenean, hilaren 21ean, ur kolektorea sartzeko lanak hasiko dituzte Mekolaldetik San Blaseko bidegurutzera. Lanok trenbidearen bidetik egingo dituzte. Hori dela eta, Mekolalde inguruan itxita egongo da bidea. Lanok aurrera egin ahala, zein bide tarte itxiko duten ohartarazteko seinaleak jarriko dituztela eman du aditzera Udaltzaingoa.

Udal Liburutegia goizez eta arratsaldez egongo da zabalik abuztura bitartean

Udal Liburutegiak udako ordutegiari ekin dio. Uztaileko ordutegia honakoa da: astelehenean egubakoitzera, 08:00etatik 13:30era, eta astelehen eta eguenean arratsaldez ere zabalduko dute, 16:00etatik 20:00etara.

Abuztuari dagokionez, 11tik 15erako asteen itxita egongo da. Gainerako egunetan goizetik egongo da zabalik, 08:00etatik 13:30era hain justu.

Herrian badira hainbat osin, eta azken urteetan ahaztu xamar egon diren arren, aurtengo udan neska-mutiko ugari hasi da osinetan bainua hartzen

Bainu freskagarriak hartzeko ez dago autoa hartu eta herritik irten beharrik

MONIKA BELASTEGI

Beti egon dira hor, baina joan den aspaldian erdi ahaztuta izan ditugu. Aurten, badirudi eurekin gogoratu garela berriz, ganorazko igerilekurik ez dugulako, akaso, eta neska-mutiko ugari aurkitu ditugu herrian dauden osinetan bainua hartzen.

Lamiategi, Amuxkibar eta San Juan. Udako egun beroetan bainu freskagarria hartzeko beste aukera bat dira. Igerilekuei, hondartzari edo urtegiei alternatiba dira. Merkea eta erosoa gainera; ez dago autoa zertan hartu, ez dago aparkalekua bilatzen zoratu beharrik, eta sarrearik ere ez da ordaindu behar.

Horrekin guztiarekin, neska-mutiko askorendako topaleku bihurtu dira. Hamar urtetik hasi eta 17 urtera arteko gazteak joaten dira, batez ere. Bainujantzia, ogitartekoa eta jokoan egiteko kartak hartu, bizikleta gainean jarri, eta errekarara bainatzera!

Arratsalde pasa joaten dira normalean, eta putzurik gustuko-enak Lamiategi eta Amuxkibar dira. Lehen San Juanera ere joaten zen jendea; gaur egun, gutxiago, lagata eta nahiko zikin dago-eta.

Bainurako osinok aukeratzek badu arrazoi bat, Lamiategi eta Amuxkibarren topatutako neska-mutikoek esan duteenez; orain arte igerilekuetara joaten ziren bainatzera, baina aurten aspertu egiten dira, ezin dutelako bainua gustura hartu: "igerileku txikia bakarrik erabili daiteke, eta ezin da gustura salto egin. Horrez gain, txikia denez, berehala betetzen da".

ANGIOZAR ERREKA

Angiozar errekan daude Lamiategi eta Amuxkibar. Angiozar bidean daude biak, San Kristobalera iritsi baino pixka bat lehengago. Lehenegoa, Lamiategi da, eta metro gutxi batzuk gorago, Amuxkibar dago; biak errepidearen ezkerreko aldean.

Oinez edo bizikletan joan daiteke, baina kontu pixka batekin joatea komeni da; izan ere, errepidetik joan beharra dago, nahiz eta auto askorik ez dabilen.

Lamiategiri dagokionez, duela bi urte egokitu zuen Udalak. Presa berria jarri zuen eta osina garbitu egin zuen. Horrez gain, osinaren ondoan dagoen berdegunea txukundu egin zuen eta mahaiak eta aulkiak jarri zituen.

Amuxkibarrari dagokionez, ez dago jendea bertan lasai esertia edo etzanda egoteko hain presatuta. Putzua egokia da bainurako, baina ez du berdegunerik. Neska-mutikoek, baina, nahiago dute, presatik behera salto egiteko aukera ematen duelako.



AMUXKIBAR/San Kristobal auzoa San Kristobalen dago, Amuxkibar baserriaren ostean. Angiozar erreka duen putzuetako bat da. Presa txiki bat dauka, eta handik osinera salto egiten jolasten dira neska-mutikoak. Gerizpe handia du. Bainurako egokia den arren, toaila jartzeko toki gutxi dago.



SAN JUAN/San Juan San Juan auzoan dago, Tartufo tabernaren ia parean. San Juan erreka daukan putzuetako bat da. Duela urte batzuk neska-mutiko asko joaten zen hara bainua hartzera. Gaur egun gutxiago joaten dira, pixka bat lagata dago-eta. Bestalde, honek ere toaila lagatzeko toki gutxi dauka.



LAMIATEGI/San Kristobal Amuxkibar baino pixka bat lehenago dago. Angiozar erreka duen beste putzu bat da. Aproposa da bainurako, eta toaila lagatzeko ere zelai nahiko handia dago. Bestalde, hainbat mahai eta eserleku ere baditu, ogitartekoarekin joan nahi



izanez gero. Duela bi urte berrituta dago Lamiategi. Putzua garbitzeaz gain, ura eusteko presatxo ere berritu egin zuen Udalak. Horrekin batera, putzuaren ondoko zelaitxo egokitu egin zuten eta orduan jarri zituzten mahaiak eta eserlekuak. Eguzkia eta gerizpea ditu.

Neska-mutikoek alternatiba aurkitu diete igerilekuei



ANDONI ARRUABARRENA
11 urte

Aurten joan naiz lehenengoz. Orain arte igerilekuetara joaten nintzen, baina aurtengo udan, bainatzeko igerileku txikia bakarrik dagoenez, gusturago joaten naiz errekarara.

Bazkal ondoren joaten naiz lagunekin, bizikletan. Ogitartekoa eramaten dut eta arratsalde berean Lamiategi eta Amuxkibarraren bainatzen naiz.



LEIRE YERA
11 urte

Koadrilako mutilei, batez ere, Amuxkibar gustatzen zaie, presatik putzura salto egin dezaketelako. Baina niri, eta koadrilako neskei, aldiz, gehiago gustatzen zaigu Lamiategi, bainurako gune handiagoa dagoelako eta toaila lurrean bota eta eserita egoteko egokiago dagoelako. Aurten bainatu naiz lehenengoz eta asko gustatu zait.



ERIK GOROSTIAGA
12 urte

Orain arte beti joan gara Lamiategira eta Amuxkibarrera, eta dagoeneko, lau edo bost aldiz egon gara. Aurten izan dut putzuen berri, koadrilako bati entzunda, eta asko gustatu zaizkit. Ni ere igerilekuetara joaten nintzen lehenago, baina orain nahiago dut errekan bainatu, igerilekuak ez daudelako ondo.



ANE DE LA ROSA
12 urte

Bizikletan joaten naiz Lamiategira eta Amuxkibarrera. Esan didate Osintxura ere joaten dela jendea bainua hartzera, baina hara ez joateko gomendatu didate, hango ura zikina dagoelako.

Errekan bainatzea asko gustatu zait; gainera, beste toki batzuetan baino jende gutxiago ibiltzen da errekan.




MUS TXAPELKETA MEKOLALDEN

Mekolalde tabernan Mus Txapelketa jokatu zen ekainaren 26an, eta Florita Txintxurretak irabazleen argazkia ekarri digu: Ignacio Mendia eta Fernando Revuelta izan ziren irabazleak, bigarren Xabier Albisua eta Marta Romero geratu ziren, Julia Basabek eta Maite Gardek osatutako bikoteak hirugarren saria eskuratu zuen eta, azkenik, Ignacio eta Igor García laugarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Ikusten denez, ondo baino hobeto pasatu zuten guztiek, eta irabazleek txapel dotoreak eraman zituzten etxera...




PILOTA FINALERA

BKEko Pilota Sailak antolatutako zozketako irabazlea Mariasun Larrañaga (eskuman) izan da. 2.767 zenbakiaren jabeari domekako eskuz banakako finala ikusteko bi sarrera eta 500 euro egokitu zaizkio. Bigarren sariaren irabazlea, berriz, ez da agertu, eta, beraz, lau lagunendako afaria berriz zozketatuko du Pilota Sailak.



SAN KRISTOBAL EGUNA

Joan den egunean, uztailaren 10ean, San Kristobal eguna ospatu zuten. Ohikoa den moduan, Angiozar bidean dagoen auzoan, mezaren ostean, autoen bedeinkapena egin zuten. Fidel Izagirre San Pedroko parrokoak egin zuen bedeinkapena, ezkerreko argazkian ikusten denez. Jende ugari elkartu zen San Kristobalen (eskumako argazkian), eta Haritz eta Enaitz trikitilariak giroa alaitzen izan ziren.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53

vegasa



MINGAINARITIRAKA



Paki Torres

TURISMO BULEGOKOA

Deustuan Turismo ikasketak egin zituen Pakik (24 urte). Arrasatekoa da, eta hirugarren urtez Bergarako Turismo Bulegoan lanean dihardu. Berarekin Josune Galarza eta Isabel López ari dira etortzen diren turistei informazioa ematen.

Bergara bisitatzera etortzeko arrazoi on bat emango zenuke?
Bergaran lanean hasitakoan ez nuen uste hain jauregi eta toki ederrak zeudenik. Horregatik, merezi du etortzea.

Zein da zuri gehien gustatzen zaizun eraikina?
Arreseko balkoia eta Jauregi etxea.

Familiari eta lagunei aurkeztu diezu Bergara?
Bai, gurasoak eta lagun batzuk ekarri izan ditut.

Kanpora zoazenean, turismo bulegotara jotzen duzu?
Bai, planoak eta informazioa eskuratzeko. Leku interesgarrienak zeintzuk diren jakiteko oso ondo daude turismo bulegoak.

Zure lanerako beharrezko dohaina?
Jendearekin irekia eta atsegina izatea, datorren jendeari laguntza emateko prest egotea beti.

Txikitan zer izan nahi zenuen?
Irakasle, umeak izugarri gustatzen zaizkit-eta.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Familiari eta nire buruarekin ondo egoteari.

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
Lagunekin egon eta Arrasatetik irten: Lekeitiora eta Briviescara askotan joaten naiz.

Kirolzalea zara?
Bai, ia egunero joaten naiz gimnasiaora.

Liburu bat/Filma bat/Musika talde bat?
Los pilares de la tierra (Ken Follet)/*Gladiator*/Marea.

Udan, hondartza ala igerilekuak?
Hondartza nahiago, Lekeitiokoa gustatzen zait gehien.

Gustuko jantzi bat? Kolore bat?
Prakak jantztea atsegin dut. Kolorea, beltza.

Mutil batengan zertan ohartzen zara lehenengo?
Ireakia eta jatorra den.

Parrandazalea zara? San Ferminetan egon zara?
Askok gustatzen zait parrandan ibiltzea, baina lanagatik ezin izan naiz San Ferminetara joan.

Aukeran, nora egingo zenuke bidaia bat?
Australiara.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Edurne Arenaza

Ameriketako Estatu Batuak / 1996ko abuztuan

Lau lagun joan ginen AEBetara, eta benetan bidaia ederra izan zen hura. Urte hartan Atlantako Olinpiar Jokoak izan zirenez, Atlantarako hegaldia nahiko prezio onean atera zitzaigun. Ez genuen Atlantako giroaz gozaterik izan, heldu bezain laster Salt Lake Cityra joateko beste hegaldi bat geneukan-eta. Gotzon Iparragirre lagunak aurretik egindako bidaia hartu genuen oinarri.

Salt Lake City mormoien hiria da. Handik Yellowstoneko Parkera joan ginen autoan. AEBetan parke natural asko dago, eta primeran zainduta daude, gainera. Yellowstoneko Parkea famatuenetakoa da, eta hango geyserrak eta arroilak ikustekoak dira. Salt Lake Cityra bueltatu ondoren, Vancouverera joan ginen. Vancouver ikaragarri gustatu zitzaigun. New Yorken estilora, italiar auzoa, txinatarrak eta beste hainbat komunitate batzen dituen hiria da; oso hiri polita da. Inguru dagoen Stanley Parkea ere guztiz gomendagarria da. Handik Seattlera jo genuen, baina ez genuen ondo ikusteko aukerarik izan, lo egiteko tokia topatzea zailagoa zelako han. Bestela, bidaia osoan ez genuen inolako arazorik izan moteletan lekua hartzeko. Gainera, orokorrean, oso ondo daude motelak.



“Ameriketako Estatu Batuetan parke natural asko dago, eta primeran zainduta daude”

“San Frantzisko ikaragarri gustatu zitzaigun; ukitu berezia duen hiria da”

Seattletik Los Angelesera joan ginen abioiez. Los Angelesen, besteak beste, Disneyworld eta Universal Estudioak bisitatu genituen. Benetan merezi du. Umeek primeran pasatzen dute, baina ez dakit nik nagusiek gehiago gozatzen duten han...

Las Vegasera joateko beste auto bat alokatu genuen, eta bidean Grand Canyon ikusi genuen. Beró handia zegoen sasoi hartan (45 gradu inguru) eta ez genuen aukerarik izan arroila behetik ikusteko. Hala ere, ikusgarria da hango paisaia. Las Vegas, berriz, batez ere gauzez ikusteko da, hango argiekin eta neonekin. Hotel bakoitzak ikuskizuna da berez. San Frantziskora bidean, Yosemite Parkean geratu ginen. Hura ere zoragarria da eta sekueioak, itzelak. San Frantzisko ukitu europarra duen hiria da. Hango aldepe eta etxe baxuek xarma berezia dute. Bidaiaren azken egunak New Yorken eman genituen. Zineman horrenbeste aldiz ikusita, ezaguna egiten zaizun hiria da New York, eta ohiko

tokiak bisitatu genituen: Askatasunaren Estatu, 5. Hiribidea, Empire State eraikina, Central Park eta beste hainbat. Izan ere, bidaiari bukaera ezin hobea emateko moduko hiria da New York.

EDU MENDIBIL



Edurne eta bere lagunak Yosemiteko Parkean ateratako argazkian.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Ogizun taldea izan da senior mailako txapeliduna.



Potzu ta Zapaburuak taldeko jokalariek txapelidunordeei zegokien trofeoarekin.

FUTBOLA

Arloteak eta Ogizun nesken taldeak txapelidun Ipintzako Futbol Txapelketan

Arloteak taldeak kadete mailako finala irabazi zion Soroluzeri (3-2) eta senior mailakoan Ogizun Potzu ta Zapaburuak taldeari nagusitu zitzaion (x-x)

EDU MENDIBIL

Arloteak eta Ogizun izan dira nesken futbol txapelketako irabazleak, kadete eta senior mailan, hurrenez hurren. Arloteak-ek 3-2 irabazi zion Soroluzeri eta Ogizun-ek Potzu ta Zapaburuak mendean hartu zuen, 2-0. Gaur futbol 11ko finala jokatuko da Ipintzan.

Kadete mailako finalean Arloteak taldeak bere nagusitasuna azaldu zuen, Soroluzeri 3-2 irabazi eta gero. Soroluzek bitan lortu zuen partidua berdintzea, baina Ainhoa Alonsok partidu amaieran lortutako gol bati esker beragarrek lortu zuten txapelidunen trofeoa. Alonsok bi gol egin zituen eta Izaro Larrañagak sartu zuen Arloteak taldearen alde-

ko beste gola. Alonso berak golegile onenaren zegokion trofeoa eskuratu zuen finalaren ostean.

Senior mailan joan zen urteko final bera errepikatu zen, eta orduan bezala Ogizun-ek irabazi zuen. Finala nahik berdinduta izan zen, baina Ogizun-ek sortu zuen arrisku gehien eta atzean ere sendo ibili zen. Azkenean, 2-0 irabazi zion Potzu ta Zapaburuak taldeari. Susana Santor arrasatearrak eta Eva Alzasek egin zituzten Ogizun-en aldeko golak. Alzasek berak golegile onenaren saria jaso zuen.

Beste hainbat sari ere banatu ziren finalaren ostean: Arrano taldeko Giomar Fernándezek eta Izar Mendikutek jokalarik eta atezain onenaren sariak jaso zituzten. Era berean, antolatzaileek talde jatorrena ere saritu

nahi izan zuten eta A Willy Willy taldeko Oihana Iñurrategik saria eskuratu zuen Valentin Egidazu kirol zinegotziaren eskutik.

Ikusle dezente bildu zen Ipintzan nesken finalak ikusteko eta giro ona izan zen nagusi. Antolatzaileak ere pozik azaldu dira nesken txapelketak izandako erantzunarekin.

FUTBOL 11KO FINALA, GAUR

Gaur, egubakoitza, gizonen futbol 11ko finala jokatuko da Ipintzan, 19:30ean. Bildurbarek Opel Lam eta Fo Fo Fo taldeak izango dira aurrez aurre. Bildurbarek taldeak uste baino errazago irabazi zion A Ze Flaxari asteleheneko finalerdian (7-0) eta Elgetako Fo Fo Fo The Parpol taldeari nagusitu zitzaion martitzenean jokatutako partiduan (4-0).



Daiana Rico (Soroluzeri), kadete mailako jokalarik onena.



Giomar Fernández (Arrano), senior mailako jokalarik onenaren sariarekin.



Ainhoa Alonsok (Arloteak) kadeteen arteko golegile onenaren saria jaso zuen.



Eva Alzasek (Ogizun) golegile onenaren saria eskuratu zuen.



Arloteak eta Soroluzeri taldeak egubakoitzeko finalaren ostean, jasotako trofeoekin.



Olatz Montealegre, Arloteak taldeko kapitaina, jasotako trofeoarekin.



Izar Mendikute (Arrano) izan da senior mailako txapelketako atezain onena.

Gurutz Larreak Urnietako lasterketa irabazi zuen

E. M.

Lokatza Sumofic taldeko Gurutz Arrieta txirrindulari antzuolarrak Urnietako IX. Peio Lizarribar Saria irabazi zuen zapatuan. Gurutz Arrietak 15 urte ditu eta aurtengoa bigarren denboraldia du Lokatza taldean. Kadete mailako taldean dihardu eta zapatuan bere lehen garaipena lortu zuen.

Txirrindulariek 56 kilometroko ibilbidea izan zuten zapatuan. Azken 10 kilometroetan sei laguneko taldetxo osatu zen eta azken kilometroan Larreak eta beste txirrindulari batek ihes

egin zuten. Larrea esprintean nagusitu zitzaion ihesaldiko lagunari. Lokatzako Joseba Mugu-ruza eta Asier Penabad ere izan ziren Urnietan, baina ez zuten lasterketa amaitzerik izan.

SANTA MARINA SARIA ZAPATUAN

Bihar, zapatua, Santa Marina Sariaren XII. ekitaldia jokatu da. Gazte mailako txirrindulariak izango dira lehian eta partaideek 98 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Lasterketa 16:00etan hasiko da eta 18:30ak aldera amaituko da, San Lorentzoko helmugan.



Gurutz Larrea, Urnietan jasotako trofeoarekin.

E.M.



AMAIA ANDUEZA

Ekzerretik eskumara, aurrean Albisua, Laskurain eta Anduaga. Atzerago, Pérez, Galarraga eta Urzelai.

IGERIKETA

Igeri Elkarteko junior mailako neskak Gipuzkoako Txapelketan izan dira

Eli Laskurainek 50 m-ko tximeleta proba irabazi zuen Anoetan, junior mailan

EDU MENDIBIL

Igeri Elkarteko Neritzel Albisua, Nerea Anduaga, Maria Galarraga, Eli Laskurain, Goiatz Pérez eta Maite Urzelaik parte hartu zuten aste bukaeran junior mailako Gipuzkoako Txapelketan, Anoetan.

Eli Laskurainek 50 m-ko tximeleta proba irabazi zuen (sailkapen absolutuan 4.a izan zen), 100 m-ko tximeleta proban 3. sailkatu zen eta 50 m estilo librean 6.a izan zen; Maite Urzelaik bigarren postua eskuratu zuen 50 m bizkar estilo proban (9.a sailkapen abso-

lutuan), 50 m estilo librean 3.a izan zen eta 100 m bizkar estiloan, laugarren geratu zen; Neritzel Albisua, berriz, hirugarren postua lortu zuen 100 eta 200 m bular estilo probetan eta 400 m estilo librean laugarren postuan sailkatu zen. 200 m bular estilo proban, sailkapen absolutuan, 5. postua eskuratu zuen Albisua; Maria Galarragak parte hartu zuen hiru probetan laugarren geratu zen, 50 m, 100 m eta 200 m bular estilo probetan; Goiatz Pérez laugarren geratu zen 100 m estilo libreko proban, 200 m-koan bosgarren tokian sailkatu zen eta 50 m estilo librean 8.a izan zen.

Erreleboko probetan bi talde osatu zituen Amaia Andueza entrenatzaileak: alde batetik Nerea Anduagak, Goiatz Pérez, Neritzel Albisua eta Maite Urzelaik seigarren postua lortu zuen 4x50 eta 4x100 m estilo libreko probetan; bestetik, Maite, Neritzel, Goiatz eta Maria Galarraga seigarren sailkatu ziren 4x50 eta 4x100 m-ko estilo-etako probetan.

EUSKADIKO TXAPELKETA ASTEBURUAN

Anoetan izan ziren igerilariek Euskadiko Txapelketan parte hartuko dute oraingo aste bukaeran, Iruñean.

Bergara Kirol Elkartearen batzar orokorra, gaur, kultura etxean

E.M.

Bergara Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarren deialdian. Urteko balantzea egiteko ordua izango da.

Bergara Kirol Elkarteak bazkideei dei egiten die gaurko batzar orokorrean parte har dezaten. Lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena, 19:30ean. Kirol aldetik eta ekonomia aldetik azken urtean elkarteak izandako gorabeherak izango dira aztergai.

Besteak beste, Agorrosingo zelaiaren gainean elkarrekin Udalarekin azkenaldian izan dituen hartu-emanak azalduko ditu Iñaki San Josek zuzendutako batzordeak. Udalak interes handia azaldu du Agorrosingo futbol zelai kirolgune berrian integratzeko, eta horren trukean elkarrekin zer jasoko lukeen erabakitzeke dago oraindik. Hain zuzen ere, hori izango da gaurko batzarrean aztertuko duten puntu nagusietako bat.

Era berean, ohikoa den moduan, elkarte kirol sailek urteko balantzea egingo dute bazkideen aurrean. Hala, kirol emai-

tzez gainera, talde bakoitzak ekonomia aldetik izan dituen gorabeherak aztertuko dituzte. Datoren denboraldirako asmoen berri ere emango dute gaurko batzar orokorrean. Batzarraren amaieran galderetarako eta eskerretarako tartea zabalduko dute bazkideendako.

Futbol Sailean jokalarien gurasoek hartu behar izan zuten Zuzendaritzaren ardura joan zen urtean, taldea Zuzendaritza barik geratzeko arriskuan egon zen. Horren harira, preferente mailako futbol taldea eguaztenean hasi zen entrenatzen hurrengo denboraldiari begira.

KIROLA

Iñaki Ugarteburu Diputazioko kirol zuzendaria izango da aurrerantzean

Hainbat urtean Bergarako Udalean kirol teknikari lanean jardun ostean, Iñaki Ugarteburu eibartarra Gipuzkoako Foru Aldundian hasi da lanean. Kirol zuzendari postua hartu du Ugarteburuk, eta Diputazioak Donostiako Gipuzkoa plazan duen egoitzan egingo du lan.

Joan den eguaztenean egin zuten ofizial Ugartebururen izendapena, eta haren ardurapean egongo dira, besteak beste, eskola kirola, kirol federatua, kirol instalazioak eta Guztindako Kirola deritzona, federatu gabeek edo eskola ume ez direnek egiten dutena.



Iñaki Ugarteburu.

IRATI AGIRREAZALDEGI



ARTXIBOA

Blues klasikoa, jazz tradizionala, eta gospel tankerako doinuak egingo ditu Los Reyes del K.O. taldeak.

Nagusiko blues beltza egiten dute, baina jazzari, *ragtime*-ari eta *gospel*-ari keinu eginez

Los Reyes del K.O. taldearen jazz emanaldia Espoloian

MONIKA BELASTEGI

Jazz kontzertuen hirugarrena izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espoloian. Marcos Coll eta Adrian Costak sortutako Los Reyes del K.O. taldeak Madrilgo blues beroena ekarriko du herrira. Besteak beste, lan berria aurkeztuko dute.

Marcos Coll eta Adrian Costa Santiagon (Galizia) hasi ziren elkarrekin jotzen, 1992. urtean, hain zuzen ere. Red Blues Band eta Bluerags taldeak osatu eta gero, Madrilera joan ziren bizi izatera, 1999an. Han, Tonky Blues Band estatuko blues talde ospetsueneko partaide egin ziren. Talde harekin blues eta

jazz jaialdi ugaritan hartu zuten parte eta artista ezagunekin jo dute, besteak beste, Mick Taylorrekin -Rolling Stones-eko kide ohia- eta Buddy Miles-ekin -Jimi Hendrixen eta Santanaren taldeen kide ohia-. Bestetik, esandako artista horiekin zuzenean jotzeaz gainera, hainbat disko grabatu dituzte.

ASKOTARIKO ERAGINA

Marcos Coll eta Adrian Costak osatzen duten bikotearen musikan era askotako eragina nabari da. Blues beltza da nagusi; edozelan ere, jazzari, *ragtime*-ari eta *gospel*-ari keinu ugari egiten dizkiote. Bikotearen errepertorioan blues klasikoko doinuak daude: W. Horton-en *Need my babe* eta L. Johnson-en *Woman don't*

lie, besteak beste. Bestetik, jazz tradizionalako hainbat lan ere jasotzen dituzten euren errepertorioan: *I left my heart in San Francisco* eta *Yesterday*, esaterako, baita *gospel* moldeko doinuak ere, beste batzuen artean, *Revelation*, *Wade in the water* eta *Reno Factory*.

Gaur Espoloian egingo duten emanaldian doinu ezagunak gain, *Los reyes del K.O.* diskoko lanak ere egingo dituzte. Disko hori Naco Goñik ekoiztu du, eta Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratu du.

Zuzeneko emanaldietan musikari gehiagorekin jarduten dute: Marcol Coll (armonika), Adrian Costa (ahotsa eta gitarra), Javier Vacas (baxua) eta Antonio Pax Álvarez (bateria).

KULTURAPILULAK

Aritzeta abesbatzaren emanaldia gaur, egubakoitza, Santa Marina parrokian

Santa Marina jaien ospakizunen barruan dago, eta 19:00etako meza nagusiaren ondoren abestuko dute Aritzetako kideek. Emanaldian sei lan abestuko dituzte, besteak beste, Virtu Maragnoren *Car navalito quebradeño* eta J. Trayterren *El abanico*.

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du etzi, domeka, Oxirondo plazan

Kontzertuaren aurretik kalejira egingo du eta 12:15ean, berriz, emanaldia. Lau lan egingo ditu: C. Canoren *Cántame un pasodoble*; J. De Hann-en *A discovery fantasy*; R. Hernándezen *El cubano*; eta Miguel Glez. Bastidaren *Mariñe doneari* ereserkia.

Kenyako doinuak eta dantzak domekan Udal Pilotalekuan

MONIKA BELASTEGI

Algap Kenya izena du etzi, domeka, Udal Pilotalekuan ikusteko aukera izango dugunak. Nairobin sortu zuten, 1990eko hamarkadan, eta abeslari, musikari eta dantzari onenarikeok osatzen dute.

Emanaldietan, euren herrialdea erakusten saiatzen dira Algap

Kenyako kideak: are zuridun hondartzak, Kinnyaga mendiaren gailur elurtuak, fauna oparoa... Taldeak *masai* dantza tipikoenak egiteaz gain, herrialdean dauden etnia askotatik ibilaldia egiten du: *urutu*, *borana*, *kikuyun*, *boganda*-k...

Emanaldia 20:00etan izango da, Udal Pilotalekuan.



ARTXIBOA

Dantzariak askotariko jantziak erakutsiko dituzte emanaldian.

Etzi, domeka, jaiak hasiko dira Basalgon

MONIKA BELASTEGI

Santiago jaiak ospatzen hasiko dira etzi, domeka, Basalgon auzoan. 09:00etan hasiko dira jaiak, etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai jotzearekin. Ondoren, ohiko zuhaitz jasotzea egingo dute.

Domekako ospakizunen ondoren, uztailearen 25ean, egubakoitza, jarraituko dute jaiak. 11:00etan, meza nagusia egingo da, eta 12:00etan, 21. Basalgon Igoera txirindulari proba jokatu da. 12:30ean, pilota partiduak egingo dira. Bi partidu izango dira: lehenengoan, Bergarako pilota eskolako gazteek jardungo

dute; bigarrenetan, berriz, goi mailako afizionatuek. 17:30ean, Basalgoko XI. Dantza txapelketa izango da eta zortzi bikotek hartuko dute parte. 18:30ean, berriz, idi probak egingo dira, eta Arruako *Etxetxok* Itziarko *Ixamaren* aurka jardungo du. Ondoren, erromeria egingo da Xafre eta Zarra soinu-joleek lagunduta.

Hilaren 26an, zapatua, meza egingo da 13:00etan. Gero, luntxa eta umeendako jokoak egingo dira, eta jaiak bukatzeko, 14:30ean bertso bazkaria egingo da Zeberio eta Mendizabal bertsoariekin. Izena Iraho eta Mekolade tabernetan eman behar da.



ARTXIBOA

Arruako *Etxetxok* eta Itziarko *Ixamak* buruz buru jokatu dute, hilaren 25ean, 18:30ean.

GUREGAIK/ OPORRAK

Kanpina, gazteendako aukera egokienetakoa

AINZANE IRIZAR

Gazteendako aukera polita da kanpina eta motxila bizkarrean hartu eta oporretara joatea. Urrutira joan barik, Euskal Herrian bertan txoko polit asko dago ikusteko, baita kanpin asko ere.

Diru askorik ez izatea eta gurasoek oso urrutira joaten ez lagatzea: horra hor gaztetxo askok oporretan izaten dituzten arazok. Biek dute irtenbidea: Euskal Herrian bertan dauden kanpinetara joatea, esaterako.


Hainbat proposamen egin nahi dizkizuegu honako honetan. Gipuzkoan, esaterako, kostaldean ditugu kanpin gehienak;

hona hemen hainbat aukera: Mutriku, Igeldo, Hondarribi eta Zarautz. Bizkaira joan nahi baduzue, berriz, hona hemen kanpina duten hainbat herri: Mundaka, Sopela eta Gorniz.

Araba aldean ez dago aukera handirik: Erriberan topatu dugu bat eta Gasteizen beste bat.

Nafarroan dugu aukera handiena, Hego Euskal Herriari dagokionez. Pirinioetan kanpin mordoa dago, Izaban eta Otsagin, esaterako. Baina baita beste hainbat tokitan ere: Lizarran, Zangozan, Goizuetan, Lekunberrin...

Kanpinen gaineko informazio zabalgoa topatzeko honako webgune hauetara jo dezakezue: www.navarra.com eta www.euskadi.com.



Kanpin aukera handia dugu Euskal Herrian.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Lorea Poza

“Etorkizunean, aktore izan nahiko nuke”

A.I.

Lotsati samar etorri zaigu Lorea; elkarrizketan, baina, ikusi dugu ez dela dirudien bezain lotsatia: antzerkia egiten duela, aktore izan nahi duela eta berba asko egiten duela esan digu.

• **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**

Bide-gorriak egingo nituzke; bestalde, gazteendako zerbait jarriko nuke: esate baterako, jolas-makinak.

• **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**

Publizitateko pegatinaren batzuk dauzkat.

• **Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Prensa arrosako saioak ez zaizkit batere gustatzen. Gustatzen zaidan saio bat, berriz, *Los Serrano* telesaila.

• **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**

Higuigarriena? Uf! Hainbeste daude! Gustukoena, berriz, Unax Ugalde.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Norbaitek adarra jotzeak.

• **Zer estimatzen duzu besteengan?**

Pertsona ona izatea.

• **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**

Lehenengo neure buruari, eta gero, etxekoei eta lagunei.

• **Zure bertute bat? Eta akats bat?**

Lagun ona naizela uste dut. Akatsa, berriz, berba larregi egiten dudala.

• **Zelan ligatzen duzue gazteok?**

Ni naizen modukoa azaltzen naiz; beste batzuek ez dakit zer egingo duten.

• **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**

Ederra dena eta gorputz gihartsua duena.

• **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**

Lagun batekin, Zaragozara joango nintzateke.

• **Etorkizunerako amets bat?**

Aktorea izatea edo saskibaloitalde on baten jokatzea.



GAZTE INFORMAZIO GUNEAREN ORDUTEGIA

Gogora ezazue udako ordutegi berezia duela Bergarako Gazte Informazio Guneak. Uztailearen 24an zabalik egongo da, baina gero oporrak hartuko dituzte. Abuztuaren 21ean, 22an, 28an eta 29an ere zabalik egongo da bulegoa.

Eguenetan goizez eta arratsaldean egongo da zabalik; goizez, 09:30etik 13:30era zabalduko dute eta arratsaldean, berriz, 16:00etatik 20:00etara.

Egubakoitzetan, berriz, goizez bakarrik zabalduko dute udako egun horietan, 09:30etik 13:30era, hain zuzen ere.

TIRABIRAKA/ Gorka Ortega eta Jon Alvarez



ZAHARREN ETXETIK



Asteleheneko Briska Txapelketan 12 bikote izan ziren lehian.



Bolo jaurtitzaileren artean ere lehia handia izan zen astelehenean.

Erretiratuendako txapelketak jokatu dira astean

EDU MENDIBIL

Santa Marinako jaiak direla-eta, erretiratuendako txapelketak jokatu dira astean barrena erretiratuen egoitzan. Astelehen arratsaldean, esaterako, briska, bolo, toka eta igel txapelketak jokatu

ziren. Briskan, Milagros González eta Jacinta Bengoa izan ziren txapelkunak, finalean Feliciano Pastor eta Obdulia Andres bikoteari irabazita.

Bolo Txapelketan, berriz, 16 lagunek jardun zuten eta Felix Uriarte izan genuen onena. Egingo dako bi jaurtiketetan bi txirlo

bota zituen Felixek. Markos Labaien bigarren geratu zen eta hirugarren postuan, berdinduta, Honorio Sampietro eta Rafael Zabaleta. Lehia handia izan zen bolo jaurtitzaileren artean.

Kirol jardunaldi luzea izan zuten erretiratuek astelehenean, eta jarraian tokan aritu ziren. 21

partaideren artean Markos Labaien izan zen onena (9 toka) eta haren ondoren Eusebio Mendizabal (7 toka) eta Jesus Ruiz de Azua (6 toka) sailkatu ziren. Ruiz de Azuak errebantxa hartu zuen Igel Txapelketan, berak irabazi zuen-eta. 775 puntu lortu zituen Jesusek, eta Eugenio Osa (675

puntu), Juan Kruz Azkarate eta Iñaki Egurenen (biak 575 puntu-ekin) aurretik geratu zen.

Atzo, eguena, Mus Txapelketa jokatzekoa zen eta gaur, egubakoitza, Santa Marina egunarekin bat eginez, sari banaketa egingo dute erretiratuen egoitzan, 17:00etan.



Euskotren-eko autobusak Debagoienara ere iristea eskatzen dute erretiratuek.

Euskotren zerbitzua eskatzeko firma bilketa

E.M.

Euskotren zerbitzua Debagoienara iristea aldarrikatzen dute herriko erretiratuek. Dagoeneko firmak batzen hasi dira, eta uztailearen amaieran batutako firma guztiak Diputaziora bidaliko dituzte. Gaur egun, Debagoienan ez dago Euskotren zerbitzurik, eta, beraz, herriko erretiratuek ez dituzte beste hainbat tokitan bidaiatzeko orduan erretiratuek dauzkaten deskontuak aprobetxatzerik. Beste herri batzuetako erretiratuen aldean, kaltetuak sentitzen dira. Izan ere, San Joxepe elkarteko ordezkarien arabera, Euskotren-eko trenetan edo

autobusetan edozein bidaiari egiteagatik 0,35 euro ordaindu beharra daukate erretiratuek. Euskotren erabiltzearen abantailak begi bistan daude, eta bidaiatzeko aukera berdintasuna aldarrikatzen dute adinekoek.

FIRMA BATZEA SAN JOXEPEN

Gauzak horrela, Bergarako erretiratuek firmak batzen hasi dira. Datozen bi asteotan firmak batzen jarraituko dute eta ondoren, Diputaziora bidaliko dituzte, Euskotren-eko autobus sarean Debagoienara iristeko eskatuz. Eskaera sinatzeko interesa dutenek zaharren egoitzara jo dezakete.

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

EDEL

TAPIZ DENDA


Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da 1942an sortutako Bergarako elkarte zaharrenaren izena?

GALDEDEBALDE

1.

Noiz jasoko dute baserri inguruetan sortzen den plastikoa?

- A/ Uztailaren 30ean.
- B/ Uztailaren 22an.
- C/ Abuztuaren 12an.

2.

Non sortu zen gaur Bergaran izango den Los Reyes del K.O jazz musika taldea?

- A/ Katalunian.
- B/ Galizian.
- C/ Andaluzian.

3.

Zein taldek irabazi du senior mailako nesken futbol txapelketa, Ipintzan?

- A/ Arloteak.
- B/ Potzu ta zapaburuak.
- C/ Ogjizun.

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR


Iñaki Olabarria

EDU-MENDIBIL


Iñaki Olabarria (Bergara, 1954) orain dela hiru urte hasi zen Simon Arrieta Zeramika Taldean. Aurretik egurra eta burdina landua zuen, eta Iñaki Magunazelaiaren eskutik ikastaroa egin ondoren, buztina nola landu ikasi zuen: "Buztinarekin lan egitea ikaragarri gustatzen zait, eskuarekin gauzak sortzea gauza ederra da. Zeramika bizio moduko bat da niretako, eta denbora librean daukadanean zeramikan murgiltzen naiz buru-belarri". Pieza zaharrak berritzeko zaletasuna ere badauka: "Pieza zaharrak biltzen ditut, eta forjatutako giltzak, esaterako, 3.000 inguru izango ditut. Erretiratzen naizenerako badaukat lana... Orain ere lagun batek 1886an Alemanian egindako bi errail ekarri dizkit. Asmatuko dut piezaren bat hortik..."

Buztina erregogorrekarekin egindako piezei kolorea ematen ikasteko raku teknika ikasteari ekin dio orain, eta neguan udan baino pieza gehiago egiten dituela diosku: "Zailena inspirazioa aurkitzea izaten da. Bolada ona daukadanean erraz ateratzen zaizkit piezak. Aurten 40 inguru egin ditut".

"Pieza zaharrak biltzen ditut, etorkizunean berritzeko asmoarekin"



E.M.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRENE SANTAMARIA rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Irene! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Udaletxean eta Simon Arrieta plazan/Simon Arrieta** / Galde debalde: **1-X, 2-X, 3-X**.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

San Miguel garagardoa

25 cl-ko 12 botila + 2 doan

3,47 €

577 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

disdira

ile apaindegia edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA

Malen Sampietro
Uztailearen 22an, 4 urte.
Urte askotarako!
Asier eta Unai.



BERGARA

Alexander Errasti
Uztailearen 19an, 3 urte.
Urte askotarako!
Amama eta etxeokak.



BERGARA

Aritz Rodrigo
Uztailearen 18an, 6 urte.
Urte askotarako!
Ama eta familiako denak.



BERGARA

Popi
Uztailearen 19an, 40 urte.
Zorionak tio Popi
40-aldiz!



BERGARA

Irene Azkargorta
Uztailearen 20an, 3 urte.
Urte askotarako!
Paul eta familia osoa.



BERGARA

Josu Domínguez
Uztailearen 20an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA

Jose Agirre
Uztailearen 19an, 78 urte.
Zorionak! Aitor, Ainhoa,
Gorka, Xabat eta etxeokak.



ELGETA

**Leire
Azkarraga-Urizar**
17an, 10 urte. Zorionak!
Etxekoak; bereziki Ainhoa.



BERGARA

Paula Ruiz de Eginu
Uztailearen 17an, urte 1.
Urte askotarako!
Joanes eta familiakoak.



ELGETA

Jone Elkoro
Uztailearen 16an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoak, Aitor,
Eva eta Marijo.



BERGARA

Yolanda Azkarate
Uztailearen 22an, urteak.
Urte askotarako!
Etxekoak, Eva eta Naiara.

Adi!

Argazkiak emateko
lekuak:
Bergara:
Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola:
Udal Liburutegia,
asteleheneretan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta:
Erosle-Baltxongua



**DEBA
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN
Irala 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 18a / 166. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Idolaz elkarteak aurrera jarraitzea erabaki zuen batzar berezian

AINTZANE IRIZAR

Batzar berezirako deialdia egin zuen Idolaz euskara elkarteak aurreko astean. Azkeneko urteotan aurrera egiteko izan dituzten arazoak ikusita, etorkizunean zer egin erabakitzeko egin zuten batzar berezi hori. Azkenean erabaki dute lanean aurrera jarraitzea.

Orain dela hamabost urtetik gora sortu zuten Idolaz taldea, herrian euskararen normalizazioa lortzeko helburuarekin. Orain dela hamar bat urte, berriz, elkarte moduan eratu zuten. Jabier Etxaniz zuzendaritza batzordeko kideak azaldu digunez, urte batzuetan oso ondo funtzionatu zuen Idolaz-ek. Azkeneko urteotan, baina, aurrera egiteko arazoak izan dituzte, zuzendaritzako kideak topatzeko, ekitaldiak antolatzeke eta elkarteke eginkizunak aurrera ateratzeko.

Jabier Etxanizen esanetan, "azkeneko urteotan nabaria zen taldearen barruan engranaje falta genuela; dinamismo apur bat behar genuela", azaldu digu.

Hortaz, zirt edo zart egiteko garaia zela ikusi zuten eta elkar-tearen etorkizuna erabakitzeko



Lehenengo urteetan, batez ere, hainbat ekitaldi antolatu zituen Idolaz-ek.


batzarrerako deialdia egin zuten. Aurreko egunean egin zuten batzar hori; Etxanizek adierazi digunez, "jende gutxi hartu zuen parte, baina elkartearen egoeraren gaineko hausnarketa egiteko aukera ona izan zen".

AURRERA EGITEA ERABAKI DUTE

Batzarrean erabaki zuten Idolaz-ek aurrera egin behar duela. Jabierrek argi eta garbi azaldu digu hemendik aurrera zela lan egingo duten: "Jende berriarekin, dinamismo handiagoarekin,

proiektu handi barik, ekitaldi erakargarriekin eta herrira gerturatu lan egiten saiatuko gara".

Oporrak gainean ditugunez, irailerako laga dute hurrengo batzarra; taldea berrosatu eta lanean hasiko dira.



Daniel Navarro irabazle

Würth-Once taldeko Daniel Navarro asturiarrak irabazi zuen aurreko domeka goizean jokatuako lasterketa. Helmugarako hamar kilometro geratzen zirenean ihes egin zuen eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara. 114 txirrindularik hartu zuen parte, eta 47 lagunek bakarrik bukatu zuten. Domekan egin zuen bero sargoriak izan zuen eraginik horretan.

Iñaki Leteren oroimenezko lasterketa izanda, haren alabaren eskutik jaso zuen saria irabazleak./A.I.

LABUR

Jai egitarauan hainbat aldaketa egin dituzte

Pilota partiduak domekan izan beharrean zapatu gauean izango dira, 22:30ean. Domeka goizerako iragarrita zegoen Bakailao Lehiaketa, berriz, bertan behera geratuta; horren ordez, Andaluziako folkloreak eta gastronomiaz gozatzeko aukera izango dugu, 12:15ean.

Plastikoa batzeko egutegia jakinarazi dute

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak jakinarazi digunez, honako egunetan jasoko dituzte baserrietako plastikoa Antzuolan, Egurribai parean: uztailaren 22an, irailaren 23an, azaroaren 25ean eta abenduaren 23an.

Gurutz Larreak txapela eskuratu zuen Urnietan

Gurutz Larreak txapela eskuratu zuen aurreko zapatuan Urnietan jokatuako lasterketan. Lehen postuan sailkatu zen Gurutz kadete mailako txirrindulariendako lasterketa horretan. Momentu honetan Antzuolan dugu txirrindulari bakarra da Gurutz eta Bergarako Lokatza taldean dihardu.

AITZ-GARBI



Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

JAIK

Jai giroa izan genuen aurreko asteburuan

AINTZANE IRIZAR

Jaietako aurreko asteburuan hainbat ekitaldi izan genituen, jaien aurrerapen bezala.

Zapatuan gari-jotze ekitaldia antolatu zuen Anelkarrek, eta arrakasta handia izan zuen, gainera. Herriko jendea ez ezik, inguruko herrietatik ere jende ugari etorri zen garia jotzen ikustera. Eta garia ebakitzen eta herriko errotak martxan ikusteko aukera ere izan zuten bisitariak; baita taloak jatekoa ere.

Ekitaldi horren helburua zen Senegal, Brasil eta Kongorako

dirua batzea; Anelkar taldeko kideek adierazi digutenez, 2.600 bat euro batu zituzten zapatuan antolatutako ekitaldietan. Antolatzaileek egun hori antolatzen lagundutako guztiei eta ekitaldian parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

DOMEKAN, ERRETIRATUEN EGUNA

Domekan, berriz, erretiratuen eguna izan zen; 11:30ean meza entzun zuten eta eguerdian bazkaria egin zuten Udal Pilotalekuan. Jende askok parte hartu zuten eta giro ezin hobea izan zuten.



Gari-jotzea eskuz eta makinaz egin zuten antolatzaileek.



Jende ugari hartu zuen parte erretiratuen bazkarian.

ELKARRIZKETA

ANDRES ETA BITTOR ARBULU/KONGON LAGUNTZAILE

“Kansenia herrira ura ekartzeko tutuak jartzera joan ginen Kongora”

A.I.

Ekain hasieran oporrak hartu eta Kongora joan ziren Bittor eta Andres Arbulu. Hilabete egin dute hantxe, Kanseniako misioan, hain zuzen ere. Bidaiatik bueltan, hango bizipenak kontatu dizkigute.

Zertan egon zarete Kongon?


Orain dela bi urte hasitako lana bukatzera joan gara. Orduan, presa batetik Kansenia herrira ura eramateko tutuak jartzera joan ginen. Handik itzuli ondoren, tutuak estali zituzten eurek, baina ordutik hona hainbat arazo izan dituzte. Izan ere, ohitura daukate gauero baso zati bat erretzeko, eta tutu zati batzuk erre egin ziren, beste batzuk berotasunarekin urtu... Tutuak konpontzera eta lanak bukatzera joan gara orain.

Orain dela bi urte zelan suertatu zitzaizuen proiektu horretan parte hartzeko aukera?

Orain dela lau urte Kongo eza-gutzera joan nintzen (Andres), Antzuolan abade jardundako On Tomasekin. Kongon misiolari egondakoa da On Tomas, eta harreman handia dauka Kanseniako abadearekin, garai baten elkarrekin ibili zirelako misiolari. Garai hartan lan handiarekin zebiltzan Kanseniako eskolak eraikitzen. Orduan, nik esan nion hara itzuli eta ura herrira ekartzeko lanak egitera joango nintzela. Gauzak horrela, Kongotik itzuli nintzenez, Bittorri proposamena egin nion eta biok joatea erabaki genuen.

Urarekin arazoak dituzte?

Ur faltarik ez daukate; alderantziz, han nahiko ur dago. Gainera, Kanseniatik gertu ibai handi bat pasatzen da; kontua da Kanseniara iritsi orduko ibaiko ura zikina dagoela. Horregatik, irtenbide egokiena zen mendiko ura eroatea herrira, eta horixe bera egin dugu.



A.I.

Ibai handi bat gertu dagoen arren, irtenbide egokiena zen mendiko ura eroatea herrira

Kansenia herrira lautada handi baten dago, eta hiru bat mila biztanle ditu

Ze egoeratan dago Kongo?

Lau zatitan banatuta dago Kongo eta zati horietako bakoitza tribu baten ardurapean dago; horrela, nola edo hala, bakean bizi dira. Bestalde, ustelkeria handia dago, elizan, politikan... Alde guztietan.

Kansenia zelakoa da?

Hiru bat mila pertsona bizi dira herri hartan, eurek egindako txaboletan. Lautada handi baten dago Kansenia. Bestalde, azpiegitura aldetik eskasia handiak dituzte; errepideak, esaterako, ikustekoak dira!

Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko uztailaren 18a / 150. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

EAJ-EA koalizioak lau udal batzorderen ardura izango du eta Aralarrek hirurena

IRATI AGIRREAZALDEGI

Maiatzaren 25eko Hauteskundeetako emaitzak aztertu eta udalbatza eratuta, herritarrek aukeratutako zinegotziek negoziatzen jardun dute batzordeen banaketa egiteko. Eta dagoeneko erabaki dute zein zinegotzi izango den batzorde bakoitzeko buru.

EAJ-EA koalizioa eta Aralarko zinegotziek negoziatzen jardun ostean, azkenik, udal hauteskundeetatik ia bi hilabete pasatu direnean, jakinarazi dute alderdi bakoitzari zein batzorde dagokion.

Lau batzorde geratuko dira agintaldi honetan EAJ-EA koalizioaren gidaritzapean, eta honako hauek izango dira batzorde bakoitzeko buruak: Joseba Muxika (Hirigintza eta Ingurumena); Iñaki Ugarteburu (Kirolak); Izaskun Larrea (Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak); eta Patxi Basauri (Baserriarrak).

Aralarrek, berriz, hiru batzorderen ardura izango du: Ogasuna, Pertsonala eta Zerbitzuak (Oxel Erostarbe); Kultura, Euskara eta Gaztedia (Iban Retolaza);



Udaleko Gobernu batzordea EAJ-EAko Patxi Basauri eta Joseba Muxikak eta Aralarko Oxel Erostarbek osatuko dute.

eta Hezkuntza eta Turismoa (Rebeka Ubera).

Zenbait batzar egin ditu EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek batzordeen banaketa egiteko, eta

joan den zapatuan hartu zuten azken erabakia. Gero, eguen gauean, udaletxean egindako osoko bilkuran berretsi egin zuten hitzartutakoa.

Adostasuna lortu artean alderdi bataren zein bestearen proposamenak hartu dira kontuan, eta, azkenean, biendako egokia den banaketa onartu dute.

Udaletik kanpoko hainbat erakundetan ere ordezkari izango dute hainbat zinegotzi: Patxi Basauri Suradesan, Mankomunitatean, Ur Partzuergoan, Deba-goieneko Mendi Elkartearen eta Elgeta 21 erakundearen eta Jakionen izango da Udalaren ordezkari; Izaskun Larrea Bergarako Mizpirualde egoitzan; eta Rebeka Ubera Herri Eskolan; Iñaki Ugarteburuk, berriz, Iturbe Fundazioaren eta Elkarkidetzaren ardura hartuko du.

GOBERNU BATZORDEA

Patxi Basauri alkateak, EAJ-EA koalizioa Joseba Muxikak eta Aralarko Oxel Erostarbek osatuko dute Gobernu batzordea.

Bestalde, Muxika eta Erostarbe izango dira, hurrenez hurren, alkateorde.

Udalbatza hilabetean behin izango da, behar izanez gero. Gobernu batzordeko kideak ere hilabetean behin elkartzeko dira, eta eurekin batera beste hainbat lagunek hartu ahal izango dute parte; teknikariek, esaterako, alkateak deia eginez gero. Batzordeen batzarrek irekiak izango dira eta maiztasunaz joaten direnek boto aukera izango dute.

KIROLA

Fo Fo Fo futbol taldea Ipintzako finalean

Gaur, ostirala, jokatu da Bergaran Ipintzako Futbol Txapelketako finala, eta Fo Fo Fo talde elgetarrak finalerako txartela eskuratu du.

The Parpol taldearen kontra jokatu zuen finalerdia eta "uste baino errazagoa" izan zela esan digu taldekide batek. Jokoaren lehen zatian bi gol sartu zituzten elgetarrek eta partidua amaieran 4-0 izan zen emaitza.

Ez da talde horrek Bergarako txapelketan parte hartu duen lehen aldia: "Orain dela urte

batzuk izena eman genuen lehenengo aldian partidu guztiak galdu genituen. Aurten, aldiz, gu ere harrিতa gaude lortutako emaitzekin. Izan ere, jokaturako bakarra berdindu dugu eta gainerakoak irabazi", esan digu Fo fo fo taldeko jokalariek.

Elgetan futbol talde bat sortzea ez da lan erraza, eta horrelako txapelketa baterako ekipoa elgetarrek osatuta gustura aritu dira jokoan.

Finala Bildurbarek Opel Lam taldearen kontra jokatu dute.



Aurtengo txapelketan partidu bat berdindu eta besteak irabazi egin dituzte.

LABUR

Goimendi auzoko jaiak uztailaren 24an eta 25ean

Uztailaren 24an eta 25ean Goimendi auzoko jaiak ospatuko dituzte. Berakatz-zopa janz hasiko dituzte eguen gauean jaiak auzotarrek, eta gero goizaldera arte erromeria egongo da. Santiago egunean, bari-kuan, mezaren ostean herri kirol erakustaldia egingo dute Perurena aita-seekek harri jasotzen eta Barberenak aizkorarekin. Bertsolaririk eta trikitilaririk ere ez da falta izango egun osoan. Arratsaldean dantza, solte erakustaldia izango da.

ELKARRIZKETA

ANA SOUSA ETA ARANTXA ASKASIBAR/UME UKRAINARRAK ETXEAN HARTU DITUZTE UDAN

“Ukrainan osasun arazoak dituztelako etorri dira”

Mykola eta Slava ukrainarrak dira eta Elgetara etorri dira uda pasatzera. Ana Sousak eta Arantxa Askasibarrek euren etxeetan hartu dituzte bi mutikook, eta irailera bitartean hemen egongo dira.

Zer dela eta ekarri dituzue Ukrainako umeak Elgetara?

Ana: Euren herrian bizi duten egoerarengatik, hona etorri eta bi hilabeteren ostean indar berrituta itzultzen dira. Hemen aire garbia amasten dute, fruta eta barazkiak jaten dituzte... Beharra dagoela ikusita, iaz ekarri genuen Slava lehen aldiz.

Zein egoeratan bizi dira euren herrian?

Ana: Leherketa nuklearra egon zenetik osasun arazo larriak dituzte: minbizia, azaleko gaitzak, ikusmen arazoak, arnasteko zailtasunak... Higien baldintzak ere ez dira batere onak.

Hona etortzeak, beraz, on egiten die ume horiei.

Ana: Batzuek hona etorrita



Mykola eta Slava Elgetan hartu dituzten familietako ama eta semeekin gustura ibiltzen dira.

ere izaten dute gaixotasunik; defentsa falta dutenez zauriak berehala egiten dituzte. Gehienek hobekuntza igartzen zaie eta ez dute herrira bueltatu nahi izaten

Arantxa: Garai baten guri ere gauza bera gertatzen

zitzaiGUN, ez zegoelako frutarik, jogurtik... Euren herrian jatekoa kutsatuta dago, eta hori da gaixotasunen iturria.

Zer da hona etorrita gustukoena dutena?

Arantxa: Fruta jatea asko gustatzen zaie. Bestalde, gure

etxean dagoen mutikoa hiri handi batetik dator eta han ordu asko eskolan eta etxean ematen dituzte, hemen gustura ibiltzen da kalean.

Ana: Slavarendako, ordea, zailena etxetik irtetea gertatu zaio, baina pixkanaka ohitzen

ari da. Igerilekura ere joaten dira batzuetan.

Lan asko egin behar izan duzue umeek ekartzeko.

Arantxa: Urtetik urtera gero eta lan handiagoa egin behar izan dugu, jasotzen dugun laguntza gero eta txikiagoa da-eta. Hemen bertan badago nahiko behar. Foru Aldundiak, esaterako, hainbat kanpaina egiten ditu beharrenda dauden umeak etxean hartzeko; beraz, kanpokoendako laguntza txikiagoa da. Hori dela-eta, dirua lortzeko errifak saldu, itsulapikoak jarri... egin dugu.

Ana: Lagunek ere dirua eman digute gastuei aurre egiteko. Ia denon mutikoak balira bezala portatzen gara eurekin.

Animatuko zenituzkete elgetarrak umeak etxean hartzera?

Arantxa: Han zain daude norbaitek hona noiz ekarriko. Horrek ardura bat eskatzen du, baina eurek guri ematen digutena guk ematen dieguna baino gehiago da, eta merezi du horrelako esperientzia bat bizi izatea; behin ekarri eta bizio bihurtzen da.

KIROLA


XIX. mendiko txirrindulari lasterketa jokatu da domekan

Datorren uztailearen 20an, domekan, jokatu da elitekoendako eta 23 urtetik beherakoendako XIX. Euskadiko mendiko txirrindulari lasterketa. Elgetan abiatu eta 120 kilometro inguru eginda Elgetan bertan izango dute helmuga txirrindulariek.

Euskadiko XIX Mendiko Txirrindulari lasterketak amateur mailako txirrindulariak bilduko ditu Elgetan domekan, hilaren 20an, goizez.

Proba Trofeo Euskaldun zirkuiturako puntuagarria izanik, bertan lehiatzen diren ekipetako ordezkariak izango dira Elgetan. Hala, 120 txirrindulari inguru espero dituzte.

Elgetako Txirrindulari Elkarte antolatzaileek esan digutenez, Euskal Herrian oso maila ona dago; beraz, partaide gehienak bertakoak izango dira, baina lehiakideen artean ez da faltako Espainiako beste hainbat txokotatik etorritako txirrindularirik.



Iazko irabazlea (Iñigo Urretxua), sari emaile eta antolatzaileekin.

IBILBIDE GOGORRA

Lasterketa goizeko hamarretan Elgetan abiatu eta 122 kilometro egin ondoren, 13:15 inguruan amaituko da. Irabazlea Bergara eta Elgeta arteko azken aldapan erabakiko dela uste dute antolatzaileek. Ibilbidea kontuan har-

tuta, amateur mailako proba gogorrenetakoa dela diote adituek. Lasterketa hori irabazitakoan artean daude: Vicente Prado, Fernando Martínez de Gereñu, Luis Vicente Otín, Carlos Galarreta, Alfredo Irusta, Agustín Sagasti, Unai Osa edo Ernesto Mancho.



Forjanor-en lanuztea eten dute

Forjanor Elgeta enpresako produkzioko langileek greba mugagabea hasi zuten uztailearen 7an, eta hilaren 14ra arte geldirik egon ostean, greba eten dute. Hitzarmen propioa lortzea da langileen helburua. Forjanor Sidenor Industrial taldeko langileak da, eta bertako beste enpresa batzuek negoziaketetan diharduten, haiek erabakiren bat hartu zain geratuko dira/I.A.

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Umeen
danborrada,
1989an

Orain dela urte batzuk galdu zen arren, garai baten umeen danborrada egiten zuten urtero-urtero herriko jaietako egubakoitz arratsaldean.

Urteekin galdu den ekitaldi hori ekarri nahi izan dugu oraingo astean erretratu zaharraren txokora; izan ere, ekitaldi hori galdu izan ez balitz, gaur, egubakoitza, izango zatekeen danborrada hori. Horren ordez, eguenetan umeendako jolasak, bazkaria eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte Udaleku Irekietako arduradunek. Gaur, egubakoitza, gainera, umeendako jolasparkea jarriko dute. Beraz, danborradarik ez, baina umeendako bestelako ekitaldi mordoa egoten da herriko jaietan gaur egun ere.

Sukaldariak, danbor jotzaileak, udaltzaina... Denetik egoten zen danborradan. Gaurkoan dakarkizuegun argazkian sukaldari taldea ikusten dugu.

Hona hemen argazkian azaltzen diren neska-mutikoak, ezkerretik



eskumara: Egoitz Jauregi, Maialen Madariaga, Eneko Zabaleta, Maria Sánchez, Haritz Alonso, Idurre Orobengoa, Gorka García, Nerea Barkero sukaldariak zuzentzen, eta Erik Lizarralde.

Argazkia: Felix Alonso

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Antiguako
ermita

Oraingo astean dakarkizuegun argazkia 1950eko hamarkadan ateratakoa da. Ikusten denez, nahiko aldatuta dago Antiguako ermita. Kontuan hartu behar dugu, gainera, orain dela hiru urte zaharberritu zutela ermita hori.

Bestalde, nahiz eta argazkian ez ikusi, gaur egun DYA ondoan dauden gurutzeak ermita aurrean zeuden, saihebidia egin zuten arte.



≈ 1950

Ermita bera ez ezik, inguruak ere dezentet aldatu dira Antiguako. Inguruak urbanizatuta eta itxuraldatuta daude gaur egun.



2003


Bestalde, orain dela hiru urte konpondu egin zuten ermita, barrutik eta kanpotik. 2000ko martxoan, hain zuzen ere, inauguratu zuten.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



GORA SANTAMAINIAK ETA SANTAMAINA!

AINHOA ERLOJUDENDA
Boni Laskurain 2

AKORT PUBLIZITATEA
Mugertza 7

AMPARO ILE APAINDEGIA
Boni Laskurain 2

ANTIA HARATEGIA
Matxiategi 8

BEROTZI ILE APAINDEGIA
Fleming 5

CARASA, CILVETI, LACOR Y CIA. ASEGURUAK
Fleming 3

ELADIO OINETAKOAK
Matxiategi 2

ESTELLA ORTOPEDIA
Matxiategi 5

ETXALAR
Boni Laskurain 4

ETXEBERRIA ESTEBAN ESTANKOA
Fleming 7

FLOR ARRAINDEGIA
Fleming 3

HERRAN
Matxiategi 3-4

IKASLE LIBURUDENDA
Fleming 11

ITZIAR MERTZERIA
Matxiategi 1

JUANA ELGETARRA MERTZERIA
Zubieta 38

KAYAK TABERNA
Matxiategi 3

MIZPILDI OKINDEGIA
Matxiategi 1

SALOKI MERTZERIA
Matxiategi 2

YON BILBAO ELEKTRIZITATEA
Fleming 11



ANTIA
HARATEGIA
 Matxiategi 8
 BERGARA



BOLU
FRUTATEGIA
 Aranerreka 3
 BERGARA



GERMAN LETE
ARRAINDEGIA
 Oxirondo azoka
 BERGARA



IMAZ
HARATEGIA
 Aranerreka 1
 BERGARA



LETURIA
JON MIRENA
HARATEGIA
 San Pedro 24
 BERGARA



MERTXE
OILASKOAK
 Oxirondo azoka
 BERGARA

OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU

Prestatu, zuk prestatuko
 duzu ondoen,
 baina osagai onenak
 gurean eskuratu
 ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



MUJIKA
HARATEGIA
 Kalebarren 1
 ANTZUOLA



PRIMI
ARRAINDEGIA
 A. Fleming 5
 BERGARA



SAN PEDRO
FRUTATEGIA
 San Pedro z/g
 BERGARA



URGELAY
HARATEGIA
 Ibargarai 16
 BERGARA



ZARAITZU
ARTISAUA
 Fraiskozuri 3
 BERGARA